



HERRITARREI JAULKITAKO IDENTIFIKAZIO ETA SINADURA BITARTEKOEI DAGOKIEN POLITIKA



ALDAKETEN KONTROLA

BERTSIOA	ALDAKETAK
1.1	<ul style="list-style-type: none"> – 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzako zerbitzuei buruzko uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamendura egokitzea. – Eskatzen den identifikazio-dokumentazioa eta Erabilera-baldintzen dokumentua eguneratzea. – Entrega- eta onarpen-orria, Erabilera-baldintzak eta Harpidedunaren kontratua ezabatzea.
1.2	<ul style="list-style-type: none"> – 1.2. Euskarria eta segurtasun-maila. Ziurtagiri profesionalak txartelaren / USB tokenaren euskarrian jaulkitzea. – 1.4. Identifikazio ziurtatua: OID berri bat esleitu zaie txartelaren / USB tokenaren euskarrian jaulkitako ziurtagiriei. – 2.1. Identitatea egiaztatzea. Europar Batasunaz kanpoko hiritarrei eskatzen zaizkien identifikazio-agiriak eguneratzea: AIZ eta pasaporteak. – Hau ezabatu da: 1.2. atala. Euskarriak: ziurtagiriak HSM euskarrian eta nabigatzaile-euskarrian jaulkitzeko aurreikuspena ezabatu da. Eta 1.5. atala. Xedapen orokorrak: ZPDan araututako alderdiak hartuko dira aintzat.
1.3	<ul style="list-style-type: none"> – 1. atala, IZENPEk jaulkitako identifikazio-baliabide berriak definitzen dira: B@K eta B@KQ. – 2. atala, identifikazio-bitarteko berriei aplikatu dakiekeen jaulkipen- eta entrega-prozedura definitzen da.
1.4	<ul style="list-style-type: none"> – 1.1. atala: B@K eta B@K Q-ren definizioak eguneratzen dira – 3. atala: beste 3. atal bat gehitzen da: Zenbatekoa.
1.5	<ul style="list-style-type: none"> – Autonomoen ziurtagiri kualifikatu gabea arautzea.
1.6	<ul style="list-style-type: none"> – BakQ jaulkitzeko Bak jaulki behar dela argitu da.

BERTSIOA	DATA	ALDAKETAK
1.7	2022/01/13	<ul style="list-style-type: none"> – 2.1.2. epigrafea: BakQ eremuan, bideo bidezko urruneko identifikazioa arautu da. – 2.1.1. epigrafea: eskatzaileari eskatutako identifikazio-dokumentazioa eguneratu da. – Ezeztatze prozedura eguneratu da. – Datuen pribatutasunari eta babesari buruzko epigrafea sartu da.



		<ul style="list-style-type: none">- 7. epigrafea: aldaketaren kudeaketa-prozesua eguneratu da.
1.8	2022/03/22	<ul style="list-style-type: none">- 1.2. epigrafea: OIden taula eguneratu da. 2. epigrafea: eskatutako dokumentazioa eguneratzea eta bizi-zikloaren idazketa eguneratu da.- 2.6. epigrafea: Ezeztatzeko prozedura eguneratu da.- Epigrafe hauek sartu dira: 5: pribatutasuna eta datuen babesa, 6: gatazkak konpontzeko mekanismoak eta 7: aldaketaren kudeaketa-prozesua eguneratu da.
1.9	2022/10/13	<p>Epigrafeak:</p> <ul style="list-style-type: none">- 1.1, 2.1.2: Aplikatzekoa den araudia eguneratu da.- 2.1.1: Eskatzailearen identitatea egiaztatzea,<ul style="list-style-type: none">- Identifikaziorako eskatzen den dokumentazioa eguneratu da.- Indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidezko egiaztatze-prozedura eguneratu da.- 2.2: Prozeduraren idazketa hobetu da.- 2.4: Ziurtagiria ezeztatzea,<ul style="list-style-type: none">- Legezko interesa duen hirugarren bat gehitu da ezeztapenaren eskatzaile posible gisa.- izenpe@izenpe.eus helbidera eskaera bat bidaltzearen bidez ziurtagiria ezeztatzeko prozedura eguneratu da.- Online ezeztatzeko aplikazioaren bidezko ezeztapena gehitu da.- 5: Informazioaren segurtasunari buruzko erreferentziak sartu dira.- Dokumentua eguneratu da, generoarekin lotutako hizkuntza inklusiboaren ikuspegitik.
2.0	2022/10/21	<p>Epigrafea,</p> <p>1,2: Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=Izenpe.com): politikaren identifikadorearen balioa eguneratu da eta QCP-n izatera pasatu da, txip kriptografikoan indarrean diren OIdetan.</p>
2.1	2023/11/06	<p>Epigrafea,</p> <ul style="list-style-type: none">- 1.1: Izenpe Mobileren definizioa eguneratu da.- 2.1: Indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidezko eskatzaileen identitatearen egiaztatzea eguneratu da.



2.2	2024/08/08	<p>Epigrafea,</p> <ul style="list-style-type: none">- 1.1: araudia eguneratzea- 1.2: zenbakiak eguneratzea- 2.1.1: urrutiko identifikazioa sartzea herritarrentzako txartel bidezko ziurtagirietarako- 2.1.5: akatsa zuzentzea.- 2.2: BAKQ: erabilera bakarreko kodea NIK Patrika aplikazioaren bidez jasotzeko aukera dago.
-----	------------	--



AURKIBIDEA

1	BITARTEKOEN DESKRIBAPENA.....	6
1.1	DEFINIZIOA.....	6
1.2	ZIURTAGIRIA IDENTIFIKATZEA.....	8
	OINARRIZKO CA 2007 HIERARKIA (CN=IZENPE.COM)	8
1.3	ERABILERA-ESPARRUA.....	9
2	POLITIKA HONETAN ARAUTUTAKO BITARTEKOEN BIZI ZIKLOA.	9
2.1	ESKATZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA.....	9
2.1.1	BAKQ ETA HERRITARRAREN TXARTELA.	9
2.1.2	BAK.....	10
2.1.3	AUTONOMOEN ZIURTAGIRI KUALIFIKATU GABEA.....	10
2.1.4	IZENPE MOBILE	10
2.2	ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA	10
2.3	ZIURTAGIRIA EGIAZTATZEA	11
2.4	ZIURTAGIRIA EZEZTATZEA.....	11
2.5	ZIURTAGIRIA BERRITZEA.....	12
3	ZENBATEKOA	12
4	ZIURTAGIRIAREN PROFILA	12
5	INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA	12
6	ALDAKETAREN KUDEAKETA	13
7	ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK	13



Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA enpresak (aurrerantzean, IZENPE) herritarrentzat jaulkitako identifikazio- eta sinadura-bitartekoei dagokien *Politika* jasotzen du dokumentu honek.

IZENPEren Ziurtapen Praktiken Deklarazioan (www.izenpe.eus/dpc) modu orokorrean definitutakoa zehaztea eta osatzea da dokumentuaren helburua.

1 BITARTEKOEN DESKRIBAPENA

1.1 Definizioa

Politika honetan araututako identifikazio-bideak 910/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera ematen dira –910/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa, zeinaren bidez indargabetzen baita 1999/93/EE Zuzentaraua (aurrerantzean eIDAS), 2024ko apirilaren 11ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1183 (EB) Erregelamenduaren bidez aldatua–.

- **Bak:** Pertsona fisikoen identifikazioa eta sinadura ahalbidetzen dituen bitartekoa, honakoek osatua:
 - **Erreferentzia-zenbaki** bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin/pasaportearekin bat datorrena.
 - **Pasahitz** bat.
 - IZENPEren biltegi zentralizatu batean jaulkitako **ziurtagiri ez-kualifikatua**, sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.

- **BakQ:** Pertsona fisikoen identifikazioa eta sinadura ahalbidetzen dituen bitartekoa, honakoek osatua:
 - **Erreferentzia-zenbaki** bat, erabiltzailearen NANarekin/AIZrekin bat datorrena.
 - **Pasahitz** bat.
 - Erabilera bakarreko kode bat; SMS bidez bidaliko da erabiltzailearen telefono mugikorrera, edo NIK Patrika aplikazioaren bidez, baldin eta erabiltzaileak Izenperen abisuak jasotzeko baimena eman badu.
 - IZENPEren biltegi zentralizatu batean jaulkitako **ziurtagiri kualifikatua**, sinadura-egintzetarako baliagarria izango dena.

BakQ jaulkitzeko, **Bak** jaulki behar da. Hortaz, **BakQ** eskatzeko unean eskatzailea dagoeneko **Bak** baten jabea bada, baliogabetu egingo da hasierako **Bak** ziurtagiria.

Bi bitartekoen pasahitza, harremanetarako datuak eta indarraldia berdinak dira.

- **Herritarraren txartela:** txartelean jaulkitako ziurtagiri kualifikatua.

- **Izenpe Mobile:** pertsona fisikoak identifikatzeko aukera ematen duen bitarteko bat da, eta pertsonari lotutako Izenperen gordailu zentralizatu seguru batean biltegitutako ziurtagiri kualifikatu bat erabiltzeko baimena ematen du. Honako hauek osatzen dute:
 - Gailu mugikorrean instalatutako appa, ziurtagiri kualifikatu gabe bati lotuta, komunikazio seguruaren prozesuak egiteko.
 - Appera sarbidea emateko faktore biometriko edo pasahitz bat.
 - Sinadura elektronikorako ziurtagiri kualifikatu bat, Izenperen biltegi zentralizatu seguru batean jaulkia, eta sinadura egintzetarako baliagarria izango dena.



- Autonomoen ziurtagiri kualifikatu gabea: jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsona fisikoen identifikazioa eta sinadura ahalbidetzen dituen ziurtagiri kualifikatu gabea, software euskarrian igorria.

Identifikatutako pertsona fisikoa harpideduna izango da, eta 16 urte baino gehiago izan beharko ditu.



1.2 Ziurtagiria identifikatzea

Oinarrizko CA 2007 hierarkia (CN=Izenpe.com)

HERRITARRAK					
Deskribapen laburra	Euskarria	Politikaren identifikatzailea	OID politika	eIDAS, identifikazio-maila	Sinadura mota eIDAS
BaK	HSM	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5	Txikia	Oinarrizkoa
BaKQ	HSM	QCP-n	1.3.6.1.4.1.14777.2.18.3	Oinarrizkoa (Giltzarekin)	Aurreratua
Herritarren Ziurtagiria	Txip kriptografikoa	QCP-n	eIDAS profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.18.1	Handia	Aurreratua
			eIDAS aurreko profila 1.3.6.1.4.1.14777.2.6	Handia	Kualifikatua
Izenpe Mobile	APP edukitzailea	NCP	1.3.6.1.4.1.14777.5.2.5.4	Oinarrizkoa	Ez aplikagarri (sinatzeko, BAKQrena erabiltzen da)



1.3 Erabilera-esparrua

Erabiltzaileak Politika honetan definitutako identifikazio- eta sinadura-bitartekoak erabiliko ditu ziurtagiria erabiltzea onartzen duten hirugarren batzuek eskainitako zerbitzuetan, betiere baldintzen dokumentuan eta IZENPEren *Ziurtapen Praktiken Deklarazioan* (ZPD) definitutako baldintzekin eta mugekin. Hemen argitaratuta daude dokumentu horiek: www.izenpe.eus.

2 POLITIKA HONETAN ARAUTUTAKO BITARTEKOEN BIZI ZIKLOA.

2.1 Eskatzailearen identitatea egiaztatzea.

2.1.1 BakQ eta Herritarraren Txartela.

Izenpek eskatzailearen identitatea egiaztatuko du modu hauetako edozeinetan:

➤ **Aurrez aurre.**

Eskatzaileak www.izenpe.com webgunera sartu eta hitzordua eskatuko du erregistro-entitatearen aurrean bertaratzeko, eta honako dokumentuak eraman beharko ditu, indarrean:

- Espainiako nazionalitatea duen herritarra: NANA, pasaporte edo gida-baimena.
- Europar Batasuneko herritarra: jatorriko herrialdeko nortasun-agiria edo pasaporte, eta harekin batera, Atzerritarren Identifikazio Txartela edo Europar Batasuneko Herritarren Erregistroak jaulkitako agiria edo AIZ emateko agiri ofiziala.
- Europar Batasunaz kanpoko herritarra: pasaporte eta, harekin batera, Atzerritarren Identifikazio Txartela edo AIZ emateko agiri ofiziala.

➤ **Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren sinadura notarioak egiaztatzea.**

Eskatzaileak:

- *Jaulkitzeko Eskaera* bete eta sinatuko du, eta *Erabiltzeko terminoak eta baldintzak* onartuko ditu. Notarioak eskaeraren sinadura legitimatuko du.
- Beharrezko dokumentazioa bidaliko du helbide honetara: **Izenpe SA - Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 1. solairua – 01008 Gasteiz.**

➤ **Edo EU TSL (Trusted Service List) zerrendan sartuta dagoen CA batek jaulki duen eta indarrean dagoen ziurtagiri kualifikatu baten bidez; bertan, azkeneko aurrez aurreko identifikazioa 5 urtetik gorakoa ez dela egiaztatu beha da.**

Horretarako, eskatzailea www.izenpe.eus webgunera sartuko da eta *Jaulkitze Eskaera* sinatuko du, adierazitakoaren arabera jaulkitako ziurtagiri bat erabilita.

➤ **Urrunetik identifikatzea, hauen arabera:**

2021eko maiatzaren 6ko ETD/465/2021 Agindua, ziurtagiri elektronikoko kualifikatuak jaulkitzeko bideo bidezko urruneko identifikazio-metodoak arautzen dituena; eta uztailaren 26ko ETD/743/2022 Agindua, aipatutako maiatzaren 6ko ETD/465/2021 Agindua aldatzen duena.



Bideo bidezko urruneko identifikazio-prozesua ez da lagunduta egingo, eta ez da beharrezkoa izango online interakziorik operadorearen eta eskatzailearen artean. Operadoreak gero berrikusiko du.

Prozesua:

- Eskatzaileak kameradun gailu mugikorra edo webcama eta mikrofonoa izan beharko ditu.
- IZENPEk nortasun-agiria erakusteko eskatuko dio (NAN/AIZ) eta interakzio eta ekintza fisikoak egin ditzala, bizirik dagoela egiaztatzeko. Prozesua grabatu egingo da.

2.1.2 [Bak](#)

Bak biltzen duen ziurtagiria kualifikatu gabea da; horrek esan nahi du jaulkitzeko ez dela beharrezkoa aurrez aurre identifikatzea.

2.1.3 [Autonomoen ziurtagiri kualifikatu gabea](#)

Eskatzeko, interesduna www.izenpe.eus webgunera sartuko da eta Bak, BakQ edo ziurtagiri elektronikoa kualifikatu baten bidez identifikatu du bere burua.

2.1.4 [Izenpe Mobile](#)

Hori eskatzeko, interesduna www.izenpe.eus helbidean sartuko da, eta BakQ edo hodeiko ziurtagiri profesionala erabiliz identifikatuko da.

2.2 Ziurtagiria jaulkitzeko eta emateko prozedura

➤ [BaK:](#)

IZENPEk,

- *Igorpen-eskaeran adierazitako helbideetara bidaliko du eskatzailea:*
 - Posta elektronikoko helbidera: baieztapeneko mezu elektronikoa.
 - Telefono mugikorrera: aldi baterako pasahitza. Erabiltzaileak erregistro-prozesuan aldatu beharko du pasahitza.
 - Behin bakarrik erabiltzeko kode bat, erabiltzailearen telefono mugikorrera SMS bidez bidaliko dena.
- Kualifikatu gabeko ziurtagiri bat jaulkiko du Izenperen biltegi zentralizatu batean, eta sinadura-egintzetarako balioko du.
- Ziurtagiria eman ondoren, erabiltzaileak edozein unetan alda dezake kodea SMS bidez bidaltzeko modua, Izenperen abisuak NIK Patrika aplikazioaren bidez bidaltzeagatik.

Horretarako, erabiltzaileak baimena eman beharko du NIK Patrika aplikazioan, aldez aurretik eta modu orokorrean, abisuak jasotzeko eta, bereziki, Izenperen abisuak bidaltzeko. Edozein unetan desaktibatu ahal izango duzu aplikazio mugikorretik oharrak jasotzeko aukera.

➤ [BakQ:](#)

IZENPEk,

- *Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran adierazitako helbideetara igorriko dio eskatzaileari:*
-



- Posta elektronikoko helbidera: mezu elektronikoa bat url pertsonalizatu batekin, jaulkitze-prozesua egiteko.
 - Telefono mugikorrera: aldi baterako pasahitza. Erabiltzaileak erregistro-prozesuan aldatu beharko du pasahitza.
- Ziurtagiri kualifikatu bat jaulkiko du IZENPEren HSM batean, eta sinadura-egintzetarako izango da baliagarria.

➤ Herritarraren txartela:

- Aurrez aurre ematea.

Izenpek eskatzaileari emango dizkio ziurtagiria, PINa eta desblokeatzeko kodea (PUK).

- Bertaratu gabe ematea.

Izenpek *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera bidaliko dizkio ziurtagiria eta gakoak eskatzaileari. Bi bidalketa bereizitan bidaliko dizkio, betiere harpidedunari soilik ematen zaizkiola egiaztatzeke moduan.

➤ Izenpe Mobile

Eskatzaileak Izenperen webgunean bere BakQ edo hodeiko ziurtagiri profesionalarekin autentifikatu eta aplikazioa Google Play edo App Store mugikorretik deskargatu ondoren, aplikazioa BakQ ziurtagiriarekin edo hodeiko ziurtagiri profesionalarekin lotu beharko du QR kode baten bidez.

➤ Autonomoen ziurtagiri kualifikatu gabea

Eskatzeko, interesduna www.izenpe.eus webgunera sartuko da eta Bak, BakQ edo ziurtagiri elektronikoa kualifikatu baten bidez identifikatuko du bere burua. Eta, nahi duen pasahitza sartu ondoren, haren gailuan deskarga dezake ziurtagiria, P12 formatuan.

2.3 Ziurtagiria egiaztatzea

Sinatzaileak, ziurtagiria jaulki, eta 15 egun baliodun izango du behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzeke, eta, beharrezkoa bada, IZENPEri funtzionamendu-akatsak dituela jakinarazteke.

Funtzionamendu-akatsak kausa teknikoen ondoriozkoak direnean (ziurtagiriaren euskarriaren funtzionamendu txarra, ziurtagiriaren errore teknikoa, eta abar) edo IZENPEri egotz dakizkiokeen ziurtagiriko datuetako erroreak direnean, orduan soilik ezeztatuko du IZENPEk ziurtagiria eta beste bat jaulkiko du, ondoriozko gastuak bere gain hartuta.

2.4 Ziurtagiria ezeztatzea

➤ Ezeztatzeke arrazoiak

Ziurtapen Praktiken Deklarazioan kontsulta daitezke: www.izenpe.eus.

➤ Ezeztatzeke eskaera

Honako hauek eska dezakete ziurtagiria ezeztatzea:



- [Harpidedunak](#), ziurtagiria haren izenean jaulki denean.
- [Izenpek](#) ZPDn identifikatutako kausetan.
- Legezko interesa duen hirugarren pertsonak.

➤ **Ezeztatzeko prozedura**

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak IZENPEren aurrean tramitatuko du ziurtagiria ezeztatzeko eskabidea.

Honako bide hauetatik ezeztatu ahal izango du ziurtagiria, edozein unetan:

- [Aurrez aurre](#), IZENPEri www.izenpe.eus webgunean hitzordua eskatuta.
- [Posta bidez](#), ziurtagiria *Ezeztatzeko Eskuera* –notarioaren aurrean sinatua eta legitimatua– helbide honetara bidalita: IZENPE SA - Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 1. solairua – 01008 Gasteiz.
- Ezeztatzeko eskaera, sinatuta, izenpe@izenpe.eus helbidera bidalita, EU TSL (Trusted Service List) zerrendan dagoen CA batek jaulkitako ziurtagiri kualifikatu batekin.
- Online ezeztatzeko aplikazioa eskuragarri dago: <https://servicios.izenpe.com/gestionCertificados/>

Eskaera jasotzen duenetik 24 orduren barruan (lanegun batean) ezeztatuko du ziurtagiria Izenpek, eta ziurtagiriaren egoeraren aldaketaren berri emango die eskatzaileari eta harpidedunari, posta elektronikoen bidez.

2.5 Ziurtagiria berritzea

Ziurtagiria iraungi aurreko 60 eguneko epean berritu ahal izango da ziurtagiria.

IZENPEk ziurtagiria jaulkitzeko eta entregatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera tramitatuko du berritzea.

3 ZENBATEKOA

IZENPEk urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak www.izenpe.eus webgunean.

Ordaintzeko eskaintzen diren aukerak:

- Elektronikoki sinatutako jaulkipen-eskaeraren kasuan,
 - Online ordainketa, ordainketa-pasabidearen bitartez.
 - Ordainketa-agiri bidez, banku-entitatean aurkezteko.
- IZENPEren erregistro-entitatera bertaratu eta ordainduta, banku-txartel bidez.

4 ZIURTAGIRIAREN PROFILA

Izenpek www.izenpe.eus webgunean argitaratzen ditu ziurtagirien profilak.

5 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Izenpek www.izenpe.eus/datos webgunean argitaratzen du pribatutasunari eta informazioa du babesari buruzko informazioa.



6 ALDAKETAREN KUDEAKETA

IZENPEren Segurtasun Batzordeak onartuko ditu Politika honetan egindako aldaketak.

Berriazko dokumentazioaren bertsio eguneratuak www.izenpe.eus helbidean kontsultatu ahal izango dira.

7 ARAZOAK KONPONTZEKO MEKANISMOAK

Alderdiek elkarren artean sor daitekeen edozein gatazka Zuzenbide Kolaboratiboko prozesu bidez ebaztea adostu dute. Adostasunik lortu ezean, Gasteizko Epaitegi eta Auzitegietara jo ahal izango dute.